

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Ekainaren 14ko batzordean, bileraren 6. puntuan lan-hitzarmenaren negoziazioan emandako aurrerapausoak komentatu ziren: adostasuna lortu da oporren gaiarekin, baina desadostasunak daude gaueko plusean eta ordezkapenetan. Lehendakariordeak proposatu zuen negoziazioa Precoan egitea, baina ez zen adostasunik egon langile-batzordearen aldetik. Bestetik, zuzendaritzak adierazi zuen 2015eko atzerapenen ordainketarekin arazoak zeudela eta ez zegoela argi egingo zen ala ez.

Orain arte ez da aurrerapausorik eman negoziazioan eta langileen aldetik protestak egiten ari dira, 2016. urtea bukatzeko 2 hilabete falta direnean, hitzarmen berririk gabe jarraitzen dutelako.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udaltzarak eskatzen dio Udal Gobernuari beharrezkoak diren gestioak egin ditzala Zorroaga Fundazioaren maiatzaren 13ko osoko batzarrean hartutako erabakia bete dadin. Hau da, langileei 2015eko atzerapenak ordaintzea, eta, legez ezinezkoa izatekotan, idatziz adieraz diezazkiela langileei eta Fundazioko patronatuari ordainketa egin ezinaren arrazoiak.
2. Udaltzarak eskatzen dio Udal Gobernuari beharrezkoak diren gestioak egin ditzala Zorroaga Fundazioak bere langileei 2016ko atzerapenak ordaintzeko, eta, legez ezinezkoa izatekotan, idatziz adierazi diezazkiela langileei eta Fundazioko patronatuari ordainketa egin ezinaren arrazoiak.
3. Udaltzarak eskatzen dio Udal Gobernuari 2016a bukatu baino lehen Zorroagako Fundazioak langileekin lan-hitzarmen bat adosteko prozesuan lagundu dezala.

Donostian, 2016ko urriaren 21ean

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia